# Enfance Jeunesse

# Guide de l'été 2025

ZIBURU CIBOURE
MAIRIE – HERRIKO ETXEA

## Edito

Chères familles,

L'année scolaire touche à sa fin, et les vacances d'été approchent à grands pas ! Ces mois de juillet et août sont l'occasion parfaite pour proposer à vos enfants des expériences mémorables. Activités culturelles et sportives, aventures en plein air, plage, sports nautiques, escapades à la montagne, sorties variées ou séjours inoubliables... chacun y trouvera son bonheur !

Répondre de manière pertinente aux besoins et attentes exprimés par les jeunes et les familles, contribuer à l'épanouissement de chacun : tels sont les objectifs du projet éducatif de territoire portés par les élus de la ville de Ciboure. Nous sommes ravis de proposer à vos enfants une multitude d'activités pour faire de cet été une saison pleine de découvertes, de rires et de partage. Bel été à toutes et à tous !

Leire Larrasa, 1ère adjointe en charge de l'Education, de l'Enfance et de la Jeunesse

## Les accueils de loisirs

Les accueils de loisirs, situés à l'école publique Marinela, accueillent les enfants et les jeunes de 3 à 15 ans du lundi au vendredi, de 7h45 à 18h30, du 7 juillet au 26 août 2025 (hors jours fériés).

### Le centre de loisirs

Maternelles et élémentaires



Activités variées et sorties organisées tout au long de l'été.
Accueil immersif en langue basque disponible tout l'été.
Courts-séjours (2 à 3 nuitées) offerts aux enfants à partir du CP, pour une expérience « hors les murs ».

### L'espace jeunes

Collégiens (nouveauté : dès la fin du CM2) et lycéens



Accueil dans un espace dédié
Activités, sorties et soirées , avec des horaires adaptés. Programme établi avec les jeunes lors des soirées de préparation de l'été les vendredi 6 et 27 juin.
Mini-séjour planifié en août (dates à venir sur le Portail Famille). Les programmes détaillés seront accessibles en ligne à partir du lundi 10 juin.

### Réservations

Assurez-vous que votre dossier annuel est à jour pour l'année 2024/2025 (valide jusqu'au 31/08/2025), puis, procédez aux réservations :

- Du 28 avril au 29 juin 2025 : Pour les foyers prioritaires (résidant ou ayant des enfants scolarisés à Ciboure), via le Portail Famille.
- Du 16 au 29 juin 2025 : Pour les autres foyers, directement auprès du guichet unique enfance jeunesse ou par e-mail à centredeloisirs@mairiedeciboure.com.

**Contact et réservation : guichet unique Enfance Jeunesse et Sports**
Place Camille Jullian 64500 Ciboure
portail.famille@mairiedeciboure.com - Tél. 05 59 24 65 58
Infos en ligne : www.mairie-ciboure.fr/espace-famille/accueil-de-loisirs
Portail famille : ciboure.portail-familles.app

## Le club de plage

### Le club Donibane

6 / 11 ans - du 7 juillet au 1er août et du 4 au 22 août
Villes de Ciboure et Saint-Jean-de-Luz



Horaires : Du lundi au vendredi, de 9 h 15 à 13 h et de 15 h à 19 h.
Activités : Jeux de sable, baignades, activités nautiques et cours de natation tous les matins.

### Réservations

Les résidents ou enfants scolarisés à Ciboure doivent compléter le dossier d'inscription entre le 2 et le 29 juin 2025 auprès du guichet unique Enfance Jeunesse et Sports.

## Les tickets vacances

### Le ticket sport vacances

8 / 14 ans - Du 30 juin au 11 juillet et du 15 au 29 août - de 8h30 à 17h30



Le ticket sports permet de découvrir et pratiquer des activités sportives encadrées par des éducateurs sportifs et associations locales. Activité gratuite ou participation de 50% du coût si prestation extérieure. Le programme sera disponible à partir du 2 juin sur le portail famille.

### Le ticket culture

9 / 13 ans - du 15 au 25 juillet de 8h30 à 17h30



Stage d'initiation au « Street Art » encadré par Xab Xab, artiste professionnel local et un animateur. Au programme : visite guidée des œuvres de Bayonne, apprentissage des techniques de street art, réalisation d'une fresque murale en ville... Ce stage est gratuit, mais nécessite une présence assidue et un engagement total. Salle Sardara, repas possible sur place en fournissant un pique-nique.

### Réservations

Les tickets sport et tickets culture sont réservés aux résidents de Ciboure
Sur inscription entre le 2 et le 29 juin 2025 auprès du guichet unique Enfance Jeunesse et Sports.

# HAURTZAROA GAZTERIA

ZIBURU CIBOURE
MAIRIE – HERRIKO ETXEA

# 2025eko udarako gida

## Aisialdi harlekua

Aisialdi harlekuak, Marinela eskolan kokatuak, 3 eta 15 urte arteko haur eta gazteentzako harlekuak dira, astelehenetik ostiralera, 7:45etik 18:30era, 2025eko uztailaren 7tik abuztuaren 26 bitartean (jaiegunetan izan ezik).

### Aisialdi zentroa

Ama eskolakoak eta lehen mailakoak



Hainbat motatako jarduerak eta ateraldiak uda osoan zehar antolaturik. Euskarazko murgiltze harrera uda osoan zehar. Egonaldi laburrak (2-3 gau) eskaintzen zaizkie lehen mailako lehen urtetik goitikoei, «hormetatik kanpoko» esperientzia baterako.

### Gaztelekua

Kolegio ikasleentzat (2025eko berria: lehen mailako 5. urtea bukatu dutenentzat ere bai) eta lizeo ikasleentzat



Haientzat bereziriko lekuan. Jarduerak, ateraldiak eta arrats saioak, ordutegi egokituekin. Uda prestatzeko arrats saioetan, ekainaren 6 eta 27 ostiraletan, gazteekin batera osatu egitaraua. Abuztuan planifikatu miniegonaldia (datak familien atarian emanen dira). Egitarauen xehetasunak ekainaren 10 astelehenetik goiti izanen dira linean eskuragarri.

Baiezta ezazue urteko zuen dosierra 2024/2025 urterako (2025/08/31 arte baliagarri) eguneraturik duzuela, gero, erreserbak egin itzazu:
2025eko apirilaren 28tik ekainaren 29ra: Lehentasuna duten familiek (Ziburun bizi edo haurrak eskolatuak dituztenak), Familia Atariaren bidez.

- 2025eko ekainaren 16tik 29ra: Gainerakoek, haurtzaroa gazteria leihatil bakarrean zuzenean edo e-postaz honako helbide onetan: centredeloisirs@mairiedeciboure.com

Allocations familiales Caf des Pyrénées-Atlantiques

Harremanetarako eta erreserbetarako: Haurtzaroaren, Gazteriaren eta Kirolen leihatil bakarra
Camille Jullian plaza 64500 Ziburu
portail.famille@mairiedeciboure.com - Tel. 05 59 24 65 58
Informazioak linean: www.mairie-ciboure.fr/espace-famille/accueil-de-loisirs
Familia ataria: ciboure.portail-familles.app

## SAR HITZA

Familia horiek agur,

Ikasturtea bukatzera doa eta udako oporraldia hortxe dugu laster! Uztail-abuztu hilabete horiek aukera bikaina dakarte haurrei esperientzia gogoangarriak proposa diezazkiezuen. Kultura eta kirol jarduerak, abenturak aire zabalean, hondartza, ur kirolak, txangoak mendira, hainbat motatako ateraldiak edo egonaldi ahantzezinak... bakoitzak gustuko zaiona atzemanen du!

Gazteek eta senideek azaltzen dizkiguten behar eta nahiei behar bezala erantzutea, nor bakoitzaren loratzea laguntzea, horiexek ditugu Ziburuko Herriaren hautetsiek daramaten lurraldeko heziketa proiektuaren helburuak. Poz handiz proposatzen diegu zuen haurrei hainbat eta hainbat jarduera, uda hau ezagupenez, irriz eta partekatzez beteriko sasoia gerta dakien. Uda ederra opa dizuegu guztiei!

Leire Larrasa, Heziketaren, Haurtzaroaren eta Gazteriaren ardura duen lehen auzapezordea.

## HONDARTZA KLUBA

### Donibane kluba

66 / 11 urte - uztailaren 7tik abuztuaren lehenera eta abuztuaren 4tik 22ra; Ziburu eta Donibane Lohizuneko Hiriak. Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 9:15etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.



Jarduerak: Hondar jostetak, bainatzeak, ur jarduerak eta igeriketa ikastaroak goizero.

**Erreserbak**

Ziburun bizi edo eskolatuak diren haurrek 2025eko ekainaren 2 eta 29 artean bete behar dute izen emate dosierra Haurtzaroaren, Gazteriaren eta Kirolen leihatil bakarrean.

## OPOR TXARTELAK

### Oporretako kirol txartela

8/14 urte - Ekainaren 30etik uztailaren 11ra eta abuztuaren 25etik 29ra – 8:30etik 17:30era



Kirol txartelak kirol hezitzaileek eta tokiko elkarteek gidaturiko kirol jarduerak ezagutu eta horietan aritzeko aukera ematen du. Urririkako jarduera, edo kostuaren %50eko parte hartzea kanpoko eskuhartzailerik bada. Egitaraua ekainaren 2tik goiti izanen da eskuragarri familia atarian.

### Kultura txartela

9/13 urtekoentzat - uztailaren 15etik 25era, 8:30etik 17:30era



«Street Art» ezagutzeko ikastaldia. Irakasleak: Xab Xab, tokiko artista profesionala eta animatzaile bat. Egitarauan: Baionako obren bisita gidatua, street art delakoaren tekniken ikastea, hirian horma-fresko baten egitea... Ikastaldia urririk da, baina jarraituki behar da joan eta erabat engaiatu. Sardara aretoan; bertan bazkal liteke piknika ekarriz gero.

**Erreserbak**

Kirol eta kultura txartelak Ziburun bizi direnetzat dira bakarrik
Izena eman behar da 2025eko ekainaren 2 eta 29 artean Haurtzaroa, Gazteria eta Kirolak leihatil bakarrean.